ORTZAIZEKO HERRIKO ETXEA — MAIRIE D'OSSÈS

# HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA
# ORTZAIZEKO HERRIA

**2023ko urtarilaren 9ko bilkura**

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarrilaren bederatzian, zazpietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak :** CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri
**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarrilaren 5a
Afitxatze eguna : 2023ko urtarrilaren 5a

## 5.ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BATEN BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA
*(4.2.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio Eguberriko askariaren karietara eskola publikoko haurrak garraiatzeko denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garraioa 2022ko abenduaren 15ean egin da, ostegunarekin, 14etatik 16:15arte.

Enplegua 2022ko abenduaren 15eko egunarentzat sortu da.

Lan denbora 2 oren eta 15 minutukoa da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikuluaren xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzeei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplika dakioke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

- ERABAKI DU 2022ko abenduaren 15erako, denbora ez osoko

teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea, 2 oren eta 15 minutuko iraupenekoa,

- enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

- BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko.

- ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guziak.

- - ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako. ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 14
Balizko boz kopurua : 14
ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 9an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/01/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/11n.